

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Jabier Zulueta, Kale Zaharreko dentista

Ehun urte bete barri fan xaku **Jabier Zulueta Elortondo**, luzaruan, agustifuen eliza parian, Uriarteneko bere jaixotetxian **dentista-lanetan** jardun ondoren. Zenbat oñatiar eta ez oñatiar ezagutu ete dau haren kontsultiak hamarkada horreittan. **Berezi samarra zan** bere lanian, ezin hori ukatu. Batez be, **txandak emuteko orduan**. Makiña bat ordu itxoitten ikusten zan jentia kanpoko errajetan goizaldian fanda; hainbeste denporan zain ez egoteko, papelian izena jarri eta hurrengo etorrenari txandia pasaitteko sistemía be asmau euen batzuek.

Hala eta guztiz be, Jabierrek urte askuan eutsi otsan bere bezerixiari. **Oso hurreko tratua eukan** jentiarekin; **komestaziño atsegiñekua zan**. **Bittor Madinak** aspalditxo aldizkari honetantxe kontaitten eben moduan, Zulueta dentistiak zera esaten ei otsan: **“Miñik badakozu, etorri lasai gabian be”**. Eta kobraitteko orduan ez eben prisarik izaten: **“Egingo dogu. Hurrengo batian esango dotsut”**. Horregatik, **Andre Madalen** kantuan letxe, sarritan entzungo osten ume eta gaztetxueiri: **“Ama etorriko da pagaittera”**. Eta ama batzuetan agerketan zan, eta beste batzuetan ez. Halako pasadizo kurioso mordua eukiko eben Jabierrek bere ibilbide profesionalian. Politta izango litzake horreittako batzuk batzeia eta argittaraketia.

Ehiztari eta arrantzale saiatua zan Jabier Zulueta. Udazkeneko kaza-denporan urtero faten zan **usotara** Gatzagara; Arabara be bai **galeperretara**. Bestela, Torrealdetik gora **Lopiasoron** familixiak eukan etxe eta basoraiño igotia gustaitten xakon; eta, jakiña, lagunekin barriketan jardutia **Txantxiku Txoko** edo **Pago Uso** alkartian.

Gaurko argazki honek be badako bere historixatxua. Bi mutil gaztek, auzokuak eta adiskidiak, COUrako azterketak egin ondoren, agua konponketia pentsau euen 1974ko garagarrillian. **Txandia** hartzera **ordu txikittan** hurreratu Zuluataneko ate aldera, izenak **apuntaitteko papela hurrenguari emun** eta etxera bueltau ziran; goizian bixak batera hartu zittuan dentistiak. Agua zabalik “tortura-aulkixan” daguena **Gerardo Urrutia** da. Fotografixia bere lagunak, **Agustin Goenagak**, atara eben arrebiak eta koiñatuak Venezuelatik ekarri otsain kamara batekin. Jabier, 55-56 urterekin, sasoiko agiri da.

Argazkixa, oraintxe aittatu dogun lez, Agustin Goenagak ataratakua da, bere karrera luzian egindako lehenengotakua. Fotografixia ez ezik, informaziñua be samurtu dosku Agustiñek. Maibi Arregi, Kepa Elortza eta Jabier Galartzari be argibide batzuk zor dostegu. Milla esker danoiri!